



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

UDALEKU IREKIAK 2011 Haurrek izena emateko deialdia

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udal Gazteria eta Kirola Sailak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat (1999 eta 2007) urteak bitartean –biak barne- jaiotako haurrak).

Bertan parte hartzen duten hurrei jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi zaie, beren gozamenerako eta autonomia pertsonala finkatzeko.

Honen bitartez Udalekuetan parte hartu nahi duten haur eta gazteen gurasoei jakinarazten zaie **haurren izena emateko epea martxoak 28tik apirilaren 16a bitartekoa** izango dela eta Mendiburu kalea 5ean kokaturik dagoen **Gazte Informazio Bulegora** jo beharko dutela.

Epea: Martxoak 28tik Apirilak 16ra (biak barne)

Baldintza: Oiartzunen erroldatutako edo herriko ikastetxeetan matrikulatutako haurrak parte hartu ahal izango dute.

(Oiartzuarra ez bada, herriko ikastetxearen ziurtagiria aurkeztu beharko du)

Kuota:

- Arrunta **70 €**
- Autobus zerbitzuarekin (+26€): **96 €**
- Udalekuetara famili bateko 3 haur apuntatzen badira %25ko deskontua izango dute
- Ordainketa LABORALEko honako kontu honetara eta **haurraren izen-abizenak adieraziz** egin behar da

3035 0126 60 1260044447 LABORALA

Ordainketa LABORALEan egin ondoren **apirilaren 16a** baino lehen izen emate orria bete behar duzue **Gazte Informazio Bulegoan**. **Ez ahaztu izen ematerakoan, LABORALEko ordainagiriaren kopia eta honekin batera, GIZARTE SEGURANTZAKO TXARTELAREN fotokopia eramatea.**

Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko, inolako kasutan.

Udalekuetan izena ematerakoan adierazi beharko da haurrek inolako alergia-rik ote duten, botikarik hartzen ari ote diren edota laguntza berezirik behar duten. Baita, autobusa erabili behar badute ere, zein autobus geltokia erabiliko duten bai joaterakoan bai bueltatzerakoan.

Udalekuak uztailaren 1tik 29a arte iraungo dute, goizero 9,30etatik 13,30ak arte. Informazio gehiago, **Gazte Informazio Bulegoan** eta www.gazteoiartzun.net webgunean.

Gazte Informazio Bulegoko ordutegia:

Astelehenetik-Ostiralera:	17:30-19:30
Larunbata:	10:30-13:30

Harremanetarako:

Telefonoa:	943 49 11 05
Posta elektronikoa:	gazteinfo@oiartzun.org